

## TREBAKUNTZA 2018-01: ERDARAKADAK I

Udal idazki askotan erdarakadak sartzen dira; hau da, gaztelaniatik hartutako hitzak, espresioak eta abarrak euskarara ekartzen dira, euskarazko hitz edo espresio jatorrak baztertuta.

**OHARRA:** Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

## OHIKO AKATSAK

1. \* Baliarrain Tolosaldean **aurkitzen da**, Ikaztegietatik hiru kilometrora.
2. \* Lehenengo txirrindularia bostetan iritsi zen, eta bigarrena bi minutu **beranduago**.
3. \* UEMAKo **herri desberdinetan** jarri da abian etorriberriak herritartzeko egitasmoa.
4. \* Gutun honen bidez, eskaera **berri bat** egin nahi dizut.
5. \* Hilaren 20an egingo den emanaldira etortzeko gonbidapena **luzatzen** dizut.
6. \* **Ongi etorriak** Kultur Etxearen inauguraziora!
7. \* Hileko azken ostegunean **ospatu** zen bilera.

## ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. “**Aurkitzen da**” gaztelaniazko “se encuentra” espresioaren kalkoa **da**. Euskarazko forma zuzena eta jatorra “**dago**” da.

Ad. Baliarrain Tolosaldean **dago**, Ikaztegietatik hiru kilometrora.

Bestalde oso ohikoa da “**kokatuta dago**” espresioa erabiltzea, eta hori ere gaztelaniazko kalkoa da (=”está situad@”).

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uma.eus](http://www.uma.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Aialde 2  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99

2. “Beranduago” erabiltzeak esan nahi du **aurreneko txirrindularia ere berandu** iritsi dela, eta pentsatzekoa da lehenengoa ez dela berandu iritsi.

Ad. Lehenengo txirrindularia bostetan iritsi zen, eta bigarrena bi minutu **geroago**.

Nolanahi ere, gerta liteke testuinguru jakin batzuetan **“beranduago” ondo** egotea.

Ad. Bostetan geunden geratuta. Ni bostak eta hogeian iritsi nintzen (berandu), eta Aitor hamar minutu **beranduago**.

3. Gaztelaniazko **“diferentes” ez da beti “ezberdinak”** izaten euskaraz.

Diferentes pueblos (=varios pueblos) = herri batzuk, zenbait herri

Pueblos diferentes (=de características diferentes) = herri desberdinak/ezberdinak (hau da, ez dira berdinak, ez dituzte ezaugarri berak).

Ad. UEMAko **zenbait herritan / herri batzuetan** abian jarri da etorri berriak herritartzeko egitasmoa.

4. Euskaraz, **“berri” zaharraren aurkakoa** adierazteko erabiltzen da, ez aurrekoari zerbait gehitzeko. Horrelakoetan, **“beste”** erabiltzen dugu.

Ad. Gutun honen bidez, **beste eskaera bat** egin nahi dizut.

5. **“Luzatu”, berez, tamainari lotuta** erabiltzen da euskaraz, gauza edo pertsona bat luzatu (=luzeagoa egin), eta ez eman edo egin esateko.

Ad. Hilaren 20an egingo den emanaldira **gonbidatzen zaitut**.

6. Euskaraz ez dago -ak horren premiarik, **espresioak ez baitu ez pluralik (-ak) ez singularrik (-a)** hartzen.

Ad. **Ongi etorri** Kultur Etxearen inauguraziora!

7. **“Ospatu” jaiak urteurrenak eta horrelakoak egiten dira**, benetan zerbait ospatzeko motiboa badago. Bestelakoetarako, **“egin”** da egokia.

Ad. Hileko azken ostegunean **izan zen** bilera / **egin zuten** bilera.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uma.eus](http://www.uma.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Aialde 2  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99

\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: [iratxe.udalak@uema.eus](mailto:iratxe.udalak@uema.eus) (Iratxe)

Hurrengora arte!

**Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea**

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Aialde 2  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99